

3.1.3.3. artikulua. Interes arkeologikoko ondarea babesteko araubidea.

1.- Presuntzio arkeologikoko eremuetan, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeak 49. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da (urriaren 8ko 234/1996 Dekretuan garatuta dago artikulua hori), balizko arkeologia zonak zehazteko araubidea ezartzen duena. Horren bidez, ustez arkeologia aztarnak dauden zona horietan egin nahi diren lanetako sustatzaile eta jabeek honako azterlana aurkeztu beharko dute nahitaez: zonaren arkeologia balioa eta balio horrek obra proiektuan izan dezakeen eraginaren ingurukoa. Ondoren, Arabako Foru Aldundiak izango du eskumena arkeologia proiektua beharrezkoa den zehazteko.

Aipatutako legean aurrez ikusten den prozesua bukatu ondoren, eta presuntzioko eremua ez bada eremu arkeologiko izendatzen, haren egoerari dagokionez instrumentu honetan ezartzen den hirigintzako arautegia aplikatuko da, organo eskudunak ezarri dituen arretekin.

3.1.3.4. artikulua. Natura arloko interesa daukan ondarea babesteko araubidea.

1.- Eremu horietan, 1.6.1.2. artikuluan ezarritako araubidea aplikatuko da, J.11 zonei dagokiena, alegia, eta babes berezikoa da, lurzoru urbanizaezin gisa daukan balio naturala dela eta, eta horrek alor horretan aplikatzen den sektoreko arautegira joarazten du.

3.1.3.5. artikulua. Katalogoaren eta babes araubidearen aldaketa.

1.- Katalogoa automatikoki aldatuko da, eta ez du planeamendu orokor honetako plan aldaketaren izaera izango, dagokion organo eskudunak arkitektura edo arkeologiako ondasunen bat inbentarioan sartzen duenean edo ingururen bat interes naturalistikokotzat jotzen duenean. Gauza bera gertatuko da aipatutako organoak katalogazioa eta dagoeneko katalogoan edo inbentarioan sartuta edo deklaratu dauden ondasun eta inguruen araubidea aldatzen duenean. Babes araubidea adierazpenaren egintzan ezartzen dena izango da.

2.- Interes historiko eta arkitektonikoko eta udalaren intereseko ondareak aldatzeko instrumentu hau aldatu beharko da. Hala ere, 3.1.1.2. "Katalogatutako Ondarea Babesteko Plan Bereziaren Formulazioa" artikuluan aipatzen den plana formulatu eta onesten baldin bada, katalogoa eta babes araubidea plana aldatuz aldatuko dira.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

1734

160/2013 FORU AGINDUA, martxoaren 21ekoa, behin betiko onartzen duena Erriberabeitiko udal planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espedientea, I-02 eremuari (Pozoscuro) dagokiona.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Erriberabeitiko Udalak, 2012ko abenduaren 12ko bilkuran, hasierako onarpena eman zion udal planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espedienteari, I-02 eremuari (Pozoscuro) dagokionari, bai eta hura jendaurrean jartzeari ere. Azken horretarako iragarkiari argitaratu ziren ALHAOn (149 zk.), 2012ko abenduaren 26an, El Correo egunkarian, 2012ko abenduaren 21ean eta udal iragarki taulan. Era berean, Rivabellosako Administrazio Batzarrari ere eman zitzaion horren berri.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, 2013ko urtarrilaren 29an behin-behineko onarpena eman zitzaion.

Artículo 3.1.3.3. Régimen de protección del Patrimonio de interés arqueológico.

1.- En las zonas de presunción arqueológica será de aplicación el artículo 49 de la Ley de Patrimonio Cultural Vasco 7/1990, desarrollado en el Decreto 234/1996 de 8 de octubre, por el que se establece el régimen para la determinación de las Zonas de Presunción Arqueológica, y que obliga a los promotores y propietarios de las obras que se pretendan realizar en las zonas en que se presume la existencia de restos arqueológicos, a que aporten un estudio referente a su valor arqueológico y a la incidencia que esto pueda tener en el proyecto de obras, siendo posteriormente competencia de la Diputación Foral de Álava determinar si es necesario o no el proyecto arqueológico.

Una vez finalizado el proceso previsto en la citada Ley, y en el supuesto de que la zona de presunción no sea declarada zona arqueológica, será de aplicación la normativa urbanística establecida en este Plan que en función de su situación corresponda, con las cautelas que haya podido imponer el órgano competente.

Artículo 3.1.3.4. Régimen de protección del Patrimonio de interés naturalístico.

1.- En estas áreas será de aplicación el régimen establecido en el artículo 1.6.1.2 correspondiente a las Zonas J.11, De especial protección por su valor natural del suelo no urbanizable, el cual, a su vez, remite a la normativa sectorial aplicable en la materia.

Artículo 3.1.3.5 Modificación del Catálogo, y del régimen de protección.

1.- El Catálogo será modificado automáticamente, sin que tenga el carácter de modificación de este Plan de planeamiento general, cuando el órgano competente correspondiente califique o inventarie algún bien arquitectónico o arqueológico o declare algún espacio de interés naturalístico. Igualmente ocurrirá cuando el órgano mencionado modifique la catalogación y el régimen aplicable en los bienes y espacios ya calificados, inventariados o declarados. El régimen de protección será el que se establezca en el acto de la declaración.

2.- La modificación de los bienes de interés histórico y arquitectónico de interés municipal requerirá la modificación del presente instrumento. No obstante, si se formula y aprueba el plan especial indicado en el artículo 3.1.1.2 "Formulación del Plan Especial de Protección del Patrimonio Catalogado", la alteración del catálogo y el régimen de protección se llevará a cabo mediante la modificación del mismo.

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

1734

ORDEN FORAL 160/2013, de 21 de marzo, aprobación definitiva del expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ribera Baja, referente al ámbito I-02 "Pozoscuro".

ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Ribera Baja acordó, en sesión del día 12 de diciembre de 2012, aprobar inicialmente el expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, referente al ámbito I-02 "Pozoscuro", así como someterlo a información pública, hecho que fue practicado mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA nº 149, de 26 de diciembre de 2012, en el periódico "El Correo" de 21 de diciembre de 2012, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y notificación a la Junta Administrativa de Rivabellosa.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 29 de enero de 2013, a aprobar provisionalmente el expediente.

Hirugarrena.- Erriberabeitiko Udalak espediente bidali zuen behin betiko onartua izan zedin. Espediente horrek 2013ko otsailaren 1ean izan zuen sarrera aldundiaren erregistroan.

Laugarrena.- Abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, Arabako Hirigintza Batzordeak, martxoaren 12ko 2/2003 bilkuran, espedienteari buruzko irizpena eman zuen.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Aldaketak egun indarrean dauden arau subsidiarioen 334. artikuluan xedatutakoa aldatzea du helburu. Artikulu horrek "Pozoscuro" I02 industria hiri lurzoruko eta I03 eta I04 eremuetako Barne Erreformako Plan Bereziko berariazko baldintzak xedatzen ditu.

Hain zuzen ere, artikulu horren 4. paragrafoa aldatzea proposatzen da. Paragrafo horrek ondokoa xedatzen du:

"4. Antolamenduak eremuaren azaleraren (gaur egungo bideak barne) ehuneko 10 erreserbatuko du, espazio librean toki sistemarako. Espazio hori lorategi bihurtuko da, eta bide nagusiaren ondoan egongo da. Hau da, industria erabileren eta zirkulazioaren artean, ikuspegiaren nahiz ingurunearen aldetik, iragazki lanak beteko ditu. Zuhaitzak sartuko dira, eta zainketa gutxi behar dituzten landareak landatuko.

Paragrafo horren ordezkia ondokoa dioena jasoko du:

"Antolamenduak eremuaren azaleraren (gaur egungo bideak barne) ehuneko 10 erreserbatuko du, espazio librean toki sistemarako. Espazio hori lorategi bihurtuko da, eta bide nagusiaren ondoan egongo da. Hau da, industria erabileren eta zirkulazioaren artean, ikuspegiaren nahiz ingurunearen aldetik, iragazki lanak beteko ditu. Zuhaitzak sartuko dira, eta zainketa gutxi behar dituzten landareak landatuko.

Pozoscuro I02 Barne Erreformako Plan Berezian antolamendu eremuan, haren tamainak, okupazio mailak eta arearen hirigintza ezaugarriek toki horniduren estandarrek betetzea ezinezko bihurtzen dutenez gero, zehazten den konpentsazioa hasierakoaz gain onartutako eraikigarritasunaren ehuneko 6 izango da."

Bigarrena.- Hona hemen aldaketaren zergatiak: batetik, Patentes Talgo SL enpresa handitzeko beharra; horrek enpresarena den I02 eremuaren azalera guztia (91.608 m²) hartzera behartzen du. Bestetik, uztaillaren 3ko 123/2012 Dekretua, hirigintza estandarrena. Dekretu horrek aldatu egin ditu industria erabilerako hiri lurzoru ez finkaturako toki sistema sareko hornidura eta ekipoetarako lursailen erreserbarako gutxienezko estandarrek. Dekretu horrek, halaber, xedatzen du dirutan eman daitekeela nahitaez laga beharreko azalerrari dagokiona, baldin eta lagapen hori eremu berean edo hartatik ahalik eta hurbilen egiterik ez bada.

Espedienteak zehazten du lurzattia dagoeneko zonaren ezaugarriak direla-eta ezinezkoa dela lursailik lagatzea bereen inguruan. Horiek horrela, 123/2012 Dekretuaren 7.3 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko proposatzen du.

Hirugarrena.- Aldaketa puntualak arrazoitu egiten du ezinezkoa dela lurzorua erreserbatzea espazio librean toki sistemarako, zeren eta enpresak aurreikusita duen handitzeak, bai bideei bai eraikinak handitzeei dagokienez, Pozoscuro I-02 eremuaren okupazio handia baitakar, bagoiak muntatzeak eragindako behar zehatzengatik.

Laugarrena.- Aurreikusitako handitzea dela-eta okupatutako lurzorua 22.473 metro koadro areagotu denez gero, toki sistematarako legezko estandarrek bete beharko dira, uztaillaren 3ko 123/2012 Dekretuak, Hirigintza Estandarrenak, 6.2 eta 6.3 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik. Horiek horrela:

1. Agiri teknikoaren zenbait zatitan huts bat antzeman da, zona berdeen eta espazio librean hornidura dela-eta ordezkio kalte-ordain ekonomikoa kalkulatzeko aintzat hartuko den azalera neurtzean, zeren eta, lurzorua azaleraren ehuneko 6ri dagokiona erreserbatu ordez,

Tercero.- El Ayuntamiento de Ribera Baja remitió el expediente para su aprobación definitiva con fecha de entrada en Registro de esta Diputación de 1 de febrero de 2013.

Cuarto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 2/2013, de 12 de marzo.

FUNDAMENTOS

Primero.- La modificación tiene por objeto la alteración de lo dispuesto en el artículo 334 de las vigentes Normas Subsidiarias, en el que se establecen las condiciones particulares del Plan Especial de Reforma Interior del ámbito de suelo urbano industrial I02 "Pozoscuro", así como de los ámbitos I03 e I04.

En concreto se propone modificar el apartado 4 del citado artículo, en el cual se establece lo siguiente:

"4. La ordenación deberá reservar como sistema local de espacios libres una superficie equivalente al 10 por ciento del ámbito (incluido el viario actual). Este espacio se dispondrá como área ajardinada y deberá situarse junto al viario principal, de modo que suponga un filtro visual y ambiental entre los usos industriales y la circulación de paso; deberá incluir arbolado y se preverá un tipo de vegetación que exija pocos cuidados."

Dicho apartado se sustituye por una redacción que dice:

"La ordenación deberá reservar como sistema local de espacios libres una superficie equivalente al 10 por ciento del ámbito (incluido el viario actual). Este espacio se dispondrá como área ajardinada y deberá situarse junto al viario principal, de modo que suponga un filtro visual y ambiental entre los usos industriales y la circulación de paso; deberá incluir arbolado y se preverá un tipo de vegetación que exija pocos cuidados."

En el ámbito de ordenación I02 PERI Pozoscuro dado que su dimensión, grado de ocupación y las características urbanísticas del área no permiten el cumplimiento de los estándares de dotaciones locales, se establece la compensación equivalente al 6 por ciento calculado sobre el incremento de edificabilidad urbanística, respecto a la previamente materializada."

Segundo.- La justificación de la modificación viene dada, por un lado, por las necesidades de ampliación de la empresa Patentes Talgo S.L., que obligan a la ocupación de la totalidad de la superficie del ámbito I02 propiedad de dicha empresa y que asciende a 91.608 m². Por otro, el vigente Decreto 123/2012, de 3 de julio, de estándares urbanísticos, ha modificado, para el suelo urbano no consolidado de uso industrial, los estándares mínimos para reserva de terrenos destinados a dotaciones y equipamientos de la red de sistemas locales, estableciendo la posibilidad de monetarizar la superficie de cesión obligatoria cuando no sea posible ubicarla en el mismo ámbito o en un lugar lo más próximo posible.

El expediente especifica que, dadas las características de la zona en la que se ubica su parcela tampoco resulta posible materializar la cesión en terrenos adyacentes a los de su propiedad, por lo que propone la aplicación de lo dispuesto en el artículo 7.3 del Decreto 123/2012.

Tercero.- La modificación puntual, justifica la imposibilidad de materializar la reserva de suelo para sistema local de espacios libres basándose en que la ampliación prevista por la empresa requiere de un alto grado de ocupación del ámbito I-02 Pozoscuro, tanto en plataforma de vías como en ampliación de edificaciones para cumplir con las específicas necesidades del montaje de vagones.

Cuarto.- Teniendo en cuenta el incremento de la superficie construida para la ampliación prevista en 22.473 m², se deberá dar cumplimiento a los estándares legales de sistemas locales correspondientes según se establece en los artículos 6.2 y 6.3 del Decreto 123/2012, de 3 de julio, de Estándares Urbanísticos. En relación a esto:

1. En varias partes del documento técnico se ha detectado un error en el cómputo de la superficie que servirá de base al posterior cálculo de la indemnización económica sustitutoria en cuanto a la dotación de zonas verdes y espacios libres puesto que, en lugar de reservar

ehuneko hori alde zuzenetik pentsatuta zegoen hirigintza eraikigarritasuna handitzeari aplikatu baitzaio. Dena den, esan beharra dago zona berdetarako erreserbatutako hori kalkulatu dela oraindik eraiki gabeko lurzuaren hirigintza eraikigarritasuna kontuan hartuta, zeren eta ez baita legezkoa dagoeneko eraikitakoaren gainean gerora lagapenik eskatzea. Horrez gain, 334. artikulua berriro idaztean, berriaz adieraziko da zer hornidurari dagokion erreserba hori (oraingo honetan zona berde eta espazio libreei).

2. Nahiz eta 1.4.b) idatz zatian (memoriaren "aldaketa arrazoitza") landaredi estandarra beteko dela adierazi, ez da ezer xedatu hari dagokionez, dagokion kalkulua egitean eta 1.5 paragrafoan (Finkatu gabeko lurzuaren horniduren ordean eman beharreko kalteordaina) islatzean.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa
XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Erriberabeitiko udal planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espediente, I-02 eremuari (Pozoscurro) dagokiona.

1. Zona berdeen eta espazio libreen hornidura dela-eta ordeko kalte-ordain ekonomikoa kalkulatzeko aintzat hartuko den azalera neurtzean, agiri teknikoaren zenbait zatitan antzemandako hutsa zuzentzea, zeren eta, lurzuaren azalaren ehuneko 6ri dagokiona erreserbatu orde, ehuneko hori alde zuzenetik pentsatuta zegoen hirigintza eraikigarritasuna handitzeari aplikatu baitzaio. Horrez gain, 334. artikulua berriro idaztean, berriaz adieraziko da zer hornidurari dagokion erreserba hori (oraingo honetan zona berde eta espazio libreei).

2. Uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 6.2.c artikuluan xedatutako landaredi estandarra zehaztea.

Bigarrena.- Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espediente (testu bateratua) foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezten eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortu du eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, eta horretarako bi hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 21a.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

1736

161/2013 FORU AGINDUA, martxoaren 21ekoa, behin betiko onarpena ematen diona Samaniegoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espediente, Samaniegoko 5. poligonoko 98, 99 eta 471 lurzatiei buruzkoari.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Samaniegoko Udalak, 2012ko maiatzaren 7ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espediente, Samaniegoko 5. poligonoko 98, 99 eta 471 lurzatiei buruzkoari, eta hori jendaurrean jartzea. Azken hori, ALHAOn (56. zk., 2012ko maiatzaren 16koa),

el equivalente al 6 por ciento de una superficie de suelo, ese porcentaje se aplica al incremento de edificabilidad urbanística respecto a la previamente materializada. A este respecto, hay que decir que dicha reserva para zonas verdes ha de entenderse que debe ser calculada sobre la superficie de suelo correspondiente a la edificabilidad urbanística pendiente de materialización, ya que no resultaría ajustado a derecho exigir retroactivamente una cesión sobre lo ya ejecutado. Además, en la nueva redacción del artículo 334, deberá indicarse explícitamente la dotación a la que se refiere dicha reserva (en este caso zonas verdes y espacios libres).

2. Aunque en el apartado b) del punto 1.4. "Justificación de la modificación" de la memoria se indica que habrá de darse cumplimiento al estándar de vegetación, a la hora de realizar el cálculo correspondiente y reflejarlo en el apartado 1.5 "Indemnización económica sustitutoria de las dotaciones en suelo urbano no consolidado", no se establece ninguna previsión al respecto.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,
DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ribera Baja, referente al ámbito I02 "Pozoscurro", con las condiciones siguientes:

1. Corregir el error detectado en distintos puntos del documento técnico en cuanto al cómputo de la superficie que sirve de base al posterior cálculo de la indemnización económica sustitutoria de la dotación de zonas verdes y espacios libres puesto que, en lugar de reservar el equivalente al 6 por ciento de la superficie de suelo correspondiente a la edificabilidad urbanística pendiente de materialización, ese porcentaje se aplica al incremento de edificabilidad urbanística respecto a la previamente materializada. Además, en la nueva redacción del artículo 334, deberá indicarse explícitamente la dotación a la que se refiere dicha reserva (en este caso zonas verdes y espacios libres).

2. Establecer el estándar para vegetación que dispone el artículo 6.2.c) del Decreto 123/2012, de 3 de julio.

Segundo.- Las condiciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, elaborando un texto refundido, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de marzo de 2013.- La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

1736

ORDEN FORAL 161/2013, de 21 de marzo, Aprobación definitiva del expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Samaniego, relativa a las parcelas 98, 99 y 471 del polígono 5 de Samaniego.

ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Samaniego acordó, en sesión del día 7 de mayo de 2012, aprobar inicialmente el expediente de la modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, referente a las parcelas 98, 99 y 471 del polígono 5 de Samaniego, así como someterlo a información pública, hecho que fue practicado mediante